

I

Emaztea eta biok banandu eta gutxira ezagutu nuen Dean. Gai-xotasun larri bat pasatu berria nuen, baina ez du merezi horretaz deus esatea; soilik, zerikusia zuela gu bion banaketa ezin dorpeagoarekin, eta dena hila iruditzen zitzaidala. Dean Moriarty agertzearekin batera hasi zen nire errepideko bizitza-edo esan dakiokena. Aurretik, sarritan ibili nuen gogoan mendebaldera joateko ametsa, herrialdea ezagutu nahirik, baina asmoa beti lausoa zen, eta ez zuen inoiz aurrera egin. Dean morroi egokia da errepiderako, jaio ere errepidean bertan jaio zelako, gurasoak Salt Lake City zeharkatzen ari zirela, 1926an, auto korrokoil batean, Los Angeleserakoan. Chad King-en bitartez izan nuen haren aditzea lehenengoz, hark Mexiko Berriko erreformatorio batetik idatzitako zenbait gutun erakutsi zizkidanean. Jakin-min handia piztu zidaten gutunek, Chadi hain xaloki eta goxoki eskatzen ziolako irakasteko Nietzscheren inguruko guztiak eta baita berak zekizkien gauza intelektual zoragarri haiek guztiak ere. Halako batean, Carlo eta biok solasean hasi ginen gutunez, geure buruari galdezka ea inoiz ezagutuko ote genuen Dean Moriarty xelebrea. Aspaldiko kontuak dira horiek, Dean bestelakoa zen garaikoak, misterioz troxaturiko kartzelakume bat zen garaikoak. Gerora zabaldu zen Dean erreformatoriotik irten zela eta New Yorkera etortzekoa zela lehen aldiz; orobat zurrumurrua zebilen Marylou izeneko neska batekin ezkondu berria zela.

Egun batez, campusean hara-hona nenbilela, Chadek eta Tim Gray-k esan zidaten Dean pisu merke batean jarria zela bizitzera, East Harlem-en, Harlem hispanoan. Dean bezpera gauean iritsia zen lehenengoz New Yorkera, Marylou bere neskatila eder per-

txentarekin batera; Greyhound konpainiaren autobusetik jaitsi ziren Berrogeita Hamargarren Kalean, eta, han inguruan zerbait jateko leku baten bila, Hector-enera joan ziren zuzenean; orduz gero, Hectorren kantina New Yorken ikur handia izan da Dea-
nentzat. Pastel handi glasatutan eta petixutan gastatu zuten dirua.

Bitarte horretan guztian, Deanez honelakoak esaten zizkion Marylouri: «Orain, laztana, hementxe gauden, New Yorken, eta bazakinat ez ninala esan zehazki zer nerabilen buruan Missouri zeharkatzean eta bereziki Booneville-ko erreformatorioaren paretik igarotzean (nire kartzelaldia gogora ekarri baitzidan), baina guztiz ezinbestekoa dun gure maite-kontuei buruzko txikikeria horiek guztiak alde batera utzi eta behingoz lanerako asmoak zertzen has-
tea...», eta abar, aspaldiko egun haietan esan ohi zuen moduan.

Apartamentu merke hartara joan nintzen mutilekin, eta Dean galtzontzilotan agertu zitzaigun atean. Marylouk salto egin zuen ohetik; Deanez sukaldera bidalia zuen beste bizilaguna, segurue-
nik kafea egitera, bere amodio-gorabeherak konpontzen saiatu bitartean, zeren berarentzat sexua zen bizitzako gauza sakratu eta garrantzitsu bakarra, nahiz izerdia eta madarikazioak bota behar izaten zituen bizimodua ateratzeko. Hori ezagun zitzaion buruari eragiteko zeukan moduan, beti behera begira, baiezka, boxeolari gazte batek jarraibideak aditzean bezala, sinetsarazteko hitz guztiak entzuten ari zela, *bai* eta *ederki* esaka. Lehen ikusi-
sian, Gene Autry-ren¹ tankerako gazte argal bat iruditu zitzaidan Dean, meharra, begiurdina, Oklahomakoa hizkeraz: Mendebalde elurtsutik etorritako heroi patilladun bat. Izan ere, Coloradoko arrantxo batean ibilia zen lanean, Ed Wall-enean, Marylouekin ezkondu eta Ekialdera etorri aurretxoan. Marylou ilehori polit bat zen, ile-xerlo erraldoiak zeuzkana adats urrekarako itsaso ba-
tean; neska ohe-ertzean jesarri zen eskuak altzoan zintzilik, bere landatar begi urdin-griskarak zabal-zabal eginik, New Yorkeko

¹ Orvon Grover «Gene» Autry (1907-1998): estatubatuar kantari eta ak-
torea, Far Westeko munduari lotua. (*Oin-ohar guztiak itzultzailearenak
dira*)

pisu negargarri hits batean zegoelako, Mendebaldean aditzez baino ezagutzen ez ziren haietako batean; egon ere, Modigliani-ren emakume surrealista luzanga erkin baten gisan zegoen zain, logela triste batean. Neskatila goxoa ez ezik zoranga hutsa ere bazen, ordea, eta izugarrikeriak egiteko gauza ere bai. Gau hartan, garagardoa edan genuen denok, eta eztabaidaka eta erasian aritu ginen egunsentira arte, eta goizean, gu isilik eserita geunden bitartean hautsontzietan batutako zigarrokinak errez egun hits bateko argi grisean, Dean artega jaiki zen, inguruka hasi, gogoe-tan, eta erabaki zuen egokiena zela Marylouk gosaria prestatzea eta erratza pasatzea.

—Garbi esanda: esnatu beharra zagon, laztana, lehen ere esan dinadanez; bestela, noragabe ibiliko gaitun, ezer egiaz ulertu gabe edo gure asmorik batere konplitu gabe.

Gero, alde egin nuen.

Hurrengo astean, Chad Kingi esan zion idazten irakatsi behar ziola nola edo hala; Chadek esan zion idazlea nintzela eta nigana jo beharko zuela aholku bila. Anartean, Deane lan bat lortu zuen aparkaleku batean; Marylouekin liskartu zen Hoboken-eko apartamentuan —ez jakin zergatik aldatu ote ziren hara—, eta nes-kak, hain zoraturik zegoenez eta halako mendeku-gosea zeukanez, poliziaren aurrean salatu zuen, akusazio historiko burugabe bat asmatu, eta Deane alde egin behar izan zuen Hobokenetik. Horrenbestez, bizilekurik gabe geratu zen. Paterson-era etorri zen zuzen-zuzenean, New Jerseyra, han bizi bainintzen izebarenean; gau batez, ikasten ari nintzelarik, norbaitek atea jo, eta Dean azal-du zen sarreraren ilunean, kilimusiak eginez eta hankak urduri mugituz, zera zioela:

—Eup, gogoratzen al haiz nirekin? Dean Moriarty. Idazten irakatsiko ote didaan galdetzeraz etorri nauk.

—Eta non dago Marylou, ba? —galdetu nion, eta Deane erantzun zuen dolar gutxi batzuk bildu omen zituela urdangakeriatan eta Denverrean itzulua zela...

—Urdanga halakoa!

Beraz, kanpora irten ginen garagardo batzuk hartzera, zeren ez geneukan lasai hitz egiterik, izeba han baitzegoen, salan jesarrita egunkaria irakurtzen. Begirakune bat bota zion Deani, eta eroturik zegoela pentsatu zuen.

Tabernan, Deani galdetu nion:

—Aizak, ondotxo zakiat ez haizela nigana etorri idazle izateko, zeren nik, azken batean, zer dakit horretaz? Anfetazale baten oldarraz ekin behar dioala, besterik ez.

Eta hark erantzun:

—Bai, noski, bazakiat zertaz ari haizen, eta, eduki ere, halakoxe arazoak eduki ditiat, baina nik nahi diat ulertu zer auzi dauden Schopenhauer-en dikotomiaren mende edozer sakon ulertzeko.

Eta hola segitu zuen hizketan, ez nik ez berak inondik ere konprenitzen ez genituen gauzak esanez. Garai hartan, berak ez zekien benetan zertaz mintzatzen zen; alegia, kartzelakume gazte bat zen, egiazko intelektual bat izateko aukera liluragarriak gutiz itsutua, eta atsegin zuen «egiazko intelektual»ei entzundako ele-melea eta hitzak erabiltzea, baina modu nahasi hartan, nahiz, kontuz!, ez zen hain inuxentea gainerakoan, eta hilabete gutxi batzuk baizik ez zituen behar izan Carlo Marx-ekin lexikoaz eta jargoiaz osorik jabetzeko. Hala ere, eromenaren beste mailetan, elkarri ulertzen genion, eta erabaki genuen nirean geratuko zela lana aurkitu arte eta, orobat, noizbait Mendebaldera joango ginela batera. 1947ko negua zen.

Halako gau batean, Deanez, nirean afaritarako zegoela —ordurako, aparkalekuan ziharduen lanean, New Yorken—, nire sorbaldaren gainetik begiratu zuen, idazmakinan karraskan idazten ari nintzen bitartean, zera esanez:

—Goazemak, gizona, bizkor! Neskok ez dituk zain egongo.

—Egon pixka batean, oraintxe egongo nauk hirekin, kapitulua amaitutakoan —ihardetsi nion.

Liburuko kapitulurik onenetako bat zen, izan ere. Prestatu, eta segituan atera ginen New Yorkerantz neska batzuekin elkartzera. Autobusean gindoazela, Lincoln tuneleko hustasun fosforeszente

xelebrean, elkarren kontra bermaturik, eskuekin keinuka, oihoa eta karrez hizketan, Deanen har bera hasi zitzaidan ausikika. Bizi-egarri ikaragarriko gazte bat baino ez zen, eta iruzurkeriatan aritzen zen, bai, baina berealdiko irrika zeukalako bizitzeko eta bestela jaramonik egingo ez liokeen jendearekin elkartzeko. Nirekin ere iruzurkeriatan aritzen zen, eta banekien (ostatua emateko eta idazten irakasteko kontuagatik, etab.), eta berak bazekien nik banekiela (horixe izan da gure arteko harremanaren oinarria), baina ez zitzaidan axola, eta ondo moldatzen ginen: ez gogaikarri, ez adeitsuegi; elkarren inguruan ibiltzen ginen jauzika, bihotzeko adiskide berriak bagina bezala. Berarengandik ikasten hasi nintzen seguruenik berak nigandik ikasten zuen bezainbeste. Nire lanari zegokionez, beti esaten zuen:

—Segi horrela. Zoragarria duk egiten duan guztia.

Nire sorbalden gainetik begiratzen zuen zer ari nintzen idazten, oihu batean, «Bai!», «Hori duk eta!», «Alajaina!», «Ederra!» eta «Ño!», eta aurpegia xukatzen zuen musuzapiarekin.

—Alajaina, hainbeste zagok egiteko, hainbeste idazteko! Hasi beharra zagok dena idatziz jartzen, estilo-mugarik eta buru-janik gabe, literaturarako uzurtasuna edo gramatika-beldurra baztertutik...

—Bai, jauna. Hori duk arrazoia.

Eta jainkozko tximista antzeko baten bristada sumatu nuen haren sukarraldi eta begitazioetan, eta halako oldarrez kontatzen zituen guztiak non autobuseko bidaiariak ingurura begiratzen baitzuten «tipo pitzatu hura» nor zen ikusteko. Mendebaldean, denboraren heren bat billarretan emana zuen, beste heren bat kartzelan eta beste bat liburutegi publikoan. Neguko kaleetan barrena ikusia zuten, bizi-bizi, buruhas, liburuak eramaten billarrera, edo zuhaitzetara igotzen kideen txapituletan sartzeko eta han egunak emateko irakurtzen edo poliziarengandik gordeta.

New Yorkera joan ginen... Ahaztua dut zein zen egoera. Baziren koloreko bi neska... Ustez, neskek jatetxe txiki batean elkartu behar zuten berarekin, baina haiek agertu ez. Deanen aparkalekura joan

ginen, zeregin gutxi batzuk zeuzkala-eta: arropak aldatu atzealdeko kabinan, apur bat maneatu ispilu zartatu baten aurrean, holakoak, eta gero alde egin genuen. Gau hartantxe ezagutu zuen Deanek Carlo Marx. Zerbait ikaragarria gertatu zen Deanek Carlo Marx ezagutu zuenean. Biek, adimen zorrotzekoak izaki, di-da ulertu zuten elkar. Bi begi zoli bi begi zoliri so: adimen distiratsuko preso ohi mistikoa, eta adimen iluneko preso ohi goibel poetikoa, Carlo Marx. Handik aurrera, gutxitan ikusi nuen Dean; gutxitan, bai, horratik. Haien indarrek talka egin zuten aurrez aurre, eta ni papao hutsa nintzen haien aldean; ezin nien segitu. Orduantxe hasi zen guztia eramango zuen eromenezko zurrunbiloa, zeinak nire adiskide guztiak eta nire ahaide apurak nahasiko baitzituen hauts-laino handi batean Amerikako Gauaren gainean. Carlok Old Bull Lee-ren, Elmer Hassel-en eta Jane-ren berri eman zion Deani: Lee Texasen zegoen, belarra hazten; Hassel Riker Island-en;² Jane Times Square-n alderrai zebilen benzedrinazko haluzinazio betean, alabatxoa besoetan hartuta, Bellevue-n³ amaitu zuen arte. Eta Deanek Mendebaldeko jende arrotza aipatu zion, hala nola Tommy Snark, billarretako marrazo oin-okerra, jokozalea eta maritxu maitagarria. Aipatu zizkion Roy Johnson, Ed Dunkel, txikitako lagunak, kaleko lagunak, ezin konta ahala neska-lagun, orgiak, argazki pornografikoak, heroiak, abenturak eta kalenturak. Kanean behera abiatu ziren, bizkor, hasierako manera hartan bereganatuz dena, manera hura askoz goibelagoa, sentikorra eta margula izan aurretik. Baina, orduan, kanean barrena zihoazen dantzan, bi ziba ero bezala, eta ni haien atzetik joaten nintzen, dandarrez, jende interesgarriarekin jokatu ohi nuen bezala, zeren axola zaizkidan pertsona bakarrak grinatsuak dira, bizitzarako grina, hizketarako grina, salbatuak izateko grina dutenak, dena aldi berean irrikatzen dutenak, sekula aharrausi egin ez edo kli-xerik erabiltzen ez dutenak, eta, horren ordez, sutan, sutan, sutan daudenak suziri beilegi miresgarriak bezala, armiarmen tankera

² New York hiriko espetxe nagusia.

³ New York hiriko psikiatrikoa.

hartzten baitute izartegian eztanda egitean: erdiko zapart urdinxka hori ikusten duzu, eta denak hasten dira «Haraaaaa!». Nola esaten zieten halako gazteei Goetheren Alemanian? Carlok bezala idazten ikasteko irrika biziz –idaztea printzipalena zen, baiki–, Dean ezin amorosago ari zitzaion erasoan, preso ohi batek soilik dakien gisan.

—Orain, Carlo, uztak hitz egiten... Hara, begira...

Ez nituen bi astean ikusi, eta, bitarte horretan, sendotu zuten beren harremana, gau eta eguneko solas deabruzko baten neurria hartzeraino.

Gero, udaberria etorri zen, bidaiatzeko sasoi nagusia, eta lagunarte sakabanatuko kide guztiak bidaiaren bat prestatzen hasi ziren, hara edo hona. Ni eleberria idazten ari nintzen buru-belarri, eta, erdi-lanak bete nituelarik, izebarekin batera Hegoaldera joan-etorri bat egin ondoan nire anaia Rocco ikusteko, Mendebaldera lehen aldiz bidaiatzeko gertatu nintzen.

Dean alde egina zen ordurako. Carlok eta biok Greyhound autobusen geltokian agurtu genuen, Hogeita Hamalagarren Kallean. Goiko solairuan, bazegoen dolar laurden batean argazkiak egiteko leku bat. Carlok, betaurrekoak erantzirik, malmutz-itxura hartu zuen. Deanez proflez atera zuen, herabe plantak egiten. Nik aurrez aurre, eta hogeita hamar urteko italiar bat ematen nuen bere ama iraintzeagatik norbait akabatua zuena. Carlok eta Deanez erdi-erditik ebaki zuten argazki hori bizar-labana batekin, eta bakoitzak zati bat gorde zuen diru-zorroan. Dean Mendebaldeko negozio-gizonen gisara zegoen jantzita, Denverrera itzultzeko bidaiarako prest; amaitua zuen lehenbiziko egonaldia New Yorken. Egon, egon, ez zen egonean egon: aparkalekuetan txakurren pare lanean eman zuen denbora guztia. Inongo aparkalekutan ez zen hura baino langile miragarriagorik: gai zen auto bat orduko hirurogei kilometroan atzeraka gidatuz leku mehar batean sartzeko eta hormaren ondotxoan gelditzeko; jarraian, salto batean aterako zen, kolpe-leungailuen artetik lasterka ibili, beste auto batean sartu, hari orduko hirurogeita hamar kilometroan bira eragin tarte estu batean, bizkor atzeraka eraman txoko

mehar batera, iupala!, eta, eskuko balazta sarturik, salto batean jaitsiko zen autoa oraindik dardaraka zegoela; gero, txarteldegira joango zen zuzen-zuzen, lasterkari profesional bat bezala arineketan, txartela eman bezeroari, heldu berria den auto batean sartu, jabea osorik atera aurretik, beraren azpi-azpian, holaxe, hura jaitsi ahala sartuz; autoa abiarazi, eta hurrengo leku libreria abian joan, maniobra egin, aparkatu, galgatu, irten, lasterka atera; halaxe lan egin zen, etenaldirik gabe, gauean zortzi orduz, eguerdiko ordu puntetan eta ikuskizunen ondoko ordu puntetan, praka narras batzuk, jakanarru maiztu bat eta zola lokatuko oinetako higatu batzuk jantzita. Orain, traje berri bat zeukan etxera bueltatzeko –urdina, arrastoduna, txaleko eta guzti–, hamaika dolarrean eresia Hirugarren Etorbidean, eta bazeuzkan erloju katedun bat eta idazmakina eramangarri bat, harekin idazten hasteko Denverreko pentsio batean, lana aurkitutakoan. Agurrerako mokadu bat ere egin genuen –saltxitxak eta indabak, Zazpigarren Etorbideko Rikerren–, eta Dean, Chicagoko autobusean sartu, eta orroka aienatu zen gauean barrena. Han zihoan gure cowboy liskarzialea. Neure buruari hitzeman nion bide bera hartuko nuela udaberriak loraldi betean lurra benetan libratzen zuenean.

Eta halaxe hasi zen nire bizitza errepidean, eta ordutik aurrera gertatuak miresgarriegiak dira isilean edukitzeko.

*

Bai, eta kontua ez zen Dean hobeto ezagutu nahi nuela bakarrik idazlea nintzelako eta bizipen berriak behar nituelako, eta campusaren jiran nuen bizitza kiribil hutsa zelako eta zentzugabea zelako, baizik eta horretaz gainera, izaeraz desberdinak ginen arren, aspaldi-aspaldi galdutako anaia bat zekarkidalako gogora nolabait ere; beraren aurpegi hezurtsu dolorezkoa, patilla luzeak eta sama tenkatu izerditua ikusteak gogorarazten zizkidan umezaroko Paterson-eko eta Passaic ibaiko tindu-putzu, osin eta erriberak. Lan-jantziek ezin hobeto ematen zioten, halako moldez non ezin erosiko baitzenioke jantzi egokiagorik inongo jostuni, zeren